

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

261 Zb.
www.getxo.net
getxoberri@getxo.net

>> 2012ko Iraila

Nabarmen^{tzekoak}

- > Irrati, sukaldaritza, dantza, makillaje, yoga eta bideosormen tailer berriak
- > Laster zabalduko da epea 2012/13 ikasturtean Gazte Informazio Guneak kudeatzeko beka deialdia
- > Gazte-Txartelak 25. urteurrena ospatuko du

Gazteekin!, badugu zer esan

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua-EGKK "Gazteekin!" topaketa martxan jarri du, gazteen ahotsa, 16 eta 35 urte bitartekoena, erabaki politikoetan kontutan hartzea nahi duen ekimena, hain zuzen ere. Horretarako, urrian zehar, Gasteizen, Donostian eta Bilbon, interesa duten hainbat gaiei buruz beste hainbeste topagune (enplegua, etxebizitza, osasuna, generoa, sexualitatea, kultura, bakea ...) antolatu dituzte.

Azaroan, 16tik 18ra, Astran (Gernikan) parte-hartze hori nola artikulatu erabakitzen hasteko kongresua antolatu dute. Informazio gehiago www.egk.org webgunean.



BEKAK SARIAK

- > **Unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko bekak 2012-2013 ikasturtean**, Eusko Jaurlaritzak deituta goi-mailako irakaskuntzetako ikasleentzat, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza dutenentzat. Deialdi honetan beka eskatzeko, ikasleek Master ofizial bat egin behar dute. Ezinbestekoa da masterraren ikasturtea 2012an ematea. Eskaria egiteko epea irailaren 28an itxiko dute. Argibide gehiago: 012 telefonoa eta www.euskadi.net.
- > **Ikerketarako 75 diru-laguntza Mapfre Fundazioan**, ikertzaileentzat edo ikerketa-taldeentzat. Ikerketa arloak honako hauek dira: Osasuna, Prebentzioa, Ingurumena eta Aseguruak. Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa 15.000 eurokoa da. Eskaria aurkezteko epea datorren urriaren 11n itxiko dute. Argibide gehiago: 91 581 23 39 telefonoa eta <http://www.mapfre.com>.
- > **Benito Ansola Sariak**, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak deituta. Deialdia 18 eta 35 urte bitarteko gazte euskaldunei dago zuzenduta. Ikus-entzunezko lanak, fikzio, sorkuntza, animazio nahiz dokumentalak, egiteko proiektuak aurkez daitezke, bakarka nahiz taldeka. Euskararen presentzia ezinbestekoa izango da, ahozkoa edo idatzizkoa euskara hutsean. 4.000 euroko 2 sari banatuko dituzte. Eskaria aurkezteko epea irailaren 28an itxiko dute. Argibide gehiago: 946215968 / 663841575 telefonoak.
- > **'Tren Bidea' argazki lehiaketa**, Burdinbidearen Euskal Museoaren Fundazioak deituta, adinez nagusi direnentzat. Gaia da Euskal Herriko trenbide sarearen trenak. Hiru sari banatuko dituzte: 1. 800 euro; 2. 500 euro; eta 3. 300 euro. Argazkiak aurkezteko epea irailaren 21ean itxiko dute. Argibide gehiago: Burdinbidearen Euskal Museo, Julian Elorza kalea 8, 20730 Azepeitia (Gipuzkoa). Helbide elektronikoa: museoa@bmfundazioa.org.

Gaztelekuaren programazioa

Iraila

Irailak 7: Sukaldaritza. Tailer honetan zure postrea, flana, egiteko aukera izango duzu. Ikasi nola egiten den gero etxean egin ahal izateko.

Irailak 15: Olinpiadak Faturan: Saskibaloian, frontoian eta futboleko arituko gara Londres 2012ko Olinpiadak oroituz. Animatu eta etorri gurekin!

Irailak 23: Zinekluba: Sorpresa izango da, oraindik ez baitakigu zein izango den filma, baina proposamenak egin ahal dituzu.

Irailak 28: Patxanga Faturan. Futbola gustuko baduzu hau da zure egun aproposena. Etorri Gaztelekura eta galdetu.

GauEgun gaztelekua

Ludotekaren programazioa

2012-13 IKASTURTEA

Irailak 11: Ikasturte berriaren aurkezpen bilera gurasoekin: 19:00etan, ludotekan.

Irailak 12: Jardueren hasiera eguna 1. txandakoentzat (5-6 urte): 17:00-20:00.

Irailak 13: Jardueren hasiera eguna 2. txandakoentzat (7-9 urte): 17:00-20:00.

Irailak 15: Jardueren hasiera eguna 3. txandakoentzat (10-11 urte): 17:00-20:00.

Irailak 17: Izena emateko epe berria zabaltzen da. Galdetu ludotekan.

kukupraka ludoteka



Irrati, sukaldaritza, dantza, makillaje, yoga eta bideosormen tailer berriak

Gazteria Udal Zerbitzuak 2012ko irailetik 2013ko otsailara bitarteko eperako dohainik izango diren tailerren eskaintza ezagutzera eman du. 11 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude eta, modalitatearen arabera, euskaraz edo gaztelaz izango dira. Lehenengo tailer bideosormenaren gainekoa izango da, euskaraz, irailaren 25etik aurrera, Gaztele-

kuan. Azaroaren 1ean dantzarena hasiko da, abenduaren 27ra arte, euskaraz ere, funky, hip hop ... nozioak eskainiko ditu. Azaroaren 5etik aurrera, "Fadura" jate-txearen sukaldeak "Sukaldaritza: bizirauten ikasi" tailerra hartuko du eta bertan plater eginerazak nahiz zailak irakatsiko dira eta, azaroaren 13tik aurrera, fikziozko irrati tailerra hasiko da, bi

horiek gaztelaz. Urtarrilean, hilaren 10ean, yoga tailerrarekin jarraituko du eskaintzak eta otsailaren 8an makillajearena eta karakterizazioarena izango dira, biak euskaraz.

Interesa dutenek izena eman beharko dute Gazte Bulegora deituz. Telefonoa: 94 466 03 53. Informazio gehiago: www.getxo.net/eu/juventud.

Laster zabalduko da epea 2012/13 ikasturtean Gazte Informazio Guneak kudeatzeko beka deialdia

Urtero bezala, 2012/2013 ikasturtean ere berriz irekiko da honako leku hauetan jarrita dauden gazte informazio panelaz arduratzeko bekak eskatzeko epea: IES Julio Caro Baroja BHI, IES Aixerrota BHI, CPEIPS Azkorri, Nuestra Señora de Europa, IEFPS Fadura GLHBI, CPEIPS San Nikolas Ikastola, PCPI Getxo-Leioa, Fadura Kiroldedia, Andra Mariko Kiroldedia eta Algortako Kultur Etxea. Panelak Getxoko gazteentzat interesgarria izan daitekeen infor-

mazioa erakusten du, gaika antolatuta. Beka emateko hautatutako pertsona edo pertsonak paneleko informazioa beti eguneratuta egoteaz arduratu behar dira. Hau astero egin behar da eta, ordainean, 470 eta 665 € bitarteko beka bat jasoko duzu urte osorako. Kasu guztietan, Getxo-Leioa PCPIren kasuan izan ezik, eskaera irailaren 24tik 28ra bitartean aurkeztu beharko da. Getxo-Leioa PCPIren kasuan epea urriaren 15etik 19ra arteko izango da.

Horretarako honako urrats hauek jarraitu: deialdiaren oinarriak eskuratu www.getxo.net, Gazteria sailean, web orritik deskargatuz edo Gazte Informazio Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako etorbidea, 98) edo edozein Herritarrentzako Arreta Bulegotan eskatuz; irakurri oinarriak arretaz eta zure zalantzak 944.660.353 telefonoan argitu (Gazte Informazio Bulegoa); inprimakiak bete; eta oinarrietan azaldutako eran aurkeztu dokumentazio guztia.



Gazte-Txartelak 25. urteurrena ospatuko du

Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak, datozen hilabetetarako, Gazte-Txartela sortu zenetik hogeita bost urte ospatzeko ekimen bi antolatu ditu. Txartel horrek, 14 eta 29 urte bitarteko euskal gazteei deskontu eta abantaila anitz eskaintzen dizkie. Alde batetik, Ekiozu! Proiektuak dinamizazioaren, integrazioaren eta giza baloreen aldeko lau proiektuen aldeko apustua egingo du: "Gazte-txartela Helmuga", "Gazte-txartela argazkia", "Gazte-txartela erreportaria" eta "Gazte-txartela misioa". Parte-hartzean oinarritutako ekimenak dira, non gazteak beraiek izango diren proiektu horietan protagonista eta norberaren sormena, buru-argitasuna eta balioa proiektuetako bakoitza garatzeko lanabesak izango diren. Ospakizunaren, Gazterarteren eguna, urriaren 6an, larunbatean, izango da Abandoibarra pasealekuan. Bertan, 20 jarduera baino gehiago izango dira 14 orduz luzatuko den hiri kirolarekin, modarekin, musikarekin, zirkoarekin eta zinemarekin lotutako etengabeko programazioan, ekitaldi gaztea, hiritarra eta abangoardiakoa egingo dela.